

Elgoibar - 12.48. zenb.
XXXI urtea - 2022-06-17



TOKIKOM

BARREN


Bizia marrazkiei

Sara Basurto



TERTULIAK programaren
ikasturte amaiera

Ekainak 23,
osteguna
19:00
Aita Agirre
kulturgunean



ERDALDUN BERRIEN KLUBA

BAKARRIZKETA

*"Irantzuren klubean gutxi dira. Lau katu.
Eta sekula ez dute saririk jaso. Ez dituzte telebistan aipatzen.
Ez diete elkarrizketarik egiten. Irantzuren kluba ezezaguna da.
Klandestinoa. Badakizue zergatik?
Irantzuren kluba ERDALDUN BERRIEN KLUBA delako,
eta erdaldunberri gehienek ez dakite erdaldun berriak direnik.
Izan ere, zer arraio da erdaldun berria izatea?"*

Doan izango da eta TERTULIAK programan parte hartzen ez dutenek ere atek zabalik izango dituzte.



Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR - 943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren@elgoibarkoizarra.eus
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitako erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasola, Maialen Sanchez. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.885 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria

Asier Guisasola Iñiguez

Portu, ubide eta bideetako ingeniaria

Jaungoikoa eta lege berria



"Akaso ondo legoke alkate izateko honako betekizun berria legez ezartzea: mediku edo apaiz curriculuma izatea"

Zein ondo egoten den bat, ondo dagoenean! Gaixo nagoenean gogoratzen dut hori.

Aste honetan, aldiz, Artxipelagoa 2021eko fikziozko podcast serie distopikoa etorri zait burura. EITBk eskaintzen duen euskarazko lehen podcast seriea da; XXII. mendean, aldaketa klimatikoa dela eta, itsas maila 500 metro igo ostean Euskal Herriko itsas gizon eta emakumeen arteko aliantzez eta abenturez dihardu. Aliantza politiko eta militarrek guztiz aldatu ditu munduan itsas maila handi horrek, eta euskaldunen bizitza modu berria kontatzen du. Ematen du gaur egungo gerrate eta mundu mailako krisi ekonomiko-soziala amestu zituztela Artxipelagoko gidoiariek.

Amestu gabe, nire aiton-amonek gerra zibila bera eta ondoren etorri zirenak pairatu behar izan zituzten. Aitxitxa Ladisek kontatzen zidan, XX. mendean herrian hiru izaten zirela pertsona esanguratsuenak: apaiza, alkatea eta medikua. Hiru figura horien ingurumarian gertatzen ziren herriko ekintza, jarduera, inaugurazio eta gisa horretako beste saltsak. Gaur egun, elizaren lehen figurantea krisialdian dagoela denok dakigu. Alkateari dagokionez, zeuk jakingo duzu zure egunerokotasunean zein behar asebetetzen dizkizun. Medikua figurak, ordea, argi daukat pertsona zaugarrienen kasuan —eta baita nirean ere— berebiziko garrantzia duela. Are gehiago, etxean hiru adingabeko ditudanetik.

Osasun sailburuak esan berri digu mediku falta omen dagoela Osakidetzan. Eta aurrerantzean beharbada beste herri batera joan beharko dugula mediku zerbitzu jakin batzuk jasotzeko.

Akaso ondo legoke alkate izateko honako betekizun berria legez ezartzea: mediku edo apaiz curriculuma derrigor edukitzea. Ez dakit Aita Santuak begi onez ikusiko lukeen, baina horrela behintzat, sendagile kopurua hobetuko litzateke, seguru.

BARENek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Jarraitu zuen magia zabaltzen

Jende magikoa agertzen da gure bizitzan ustekabean. 2018an gure seme-alabak eskutik heldu zenituzten, eta orain, 2022an, esku horiek askatuko dituzue, baina ez doaz esku-hutsik; bihotza maitasunez beteta daramate.

Euren malkoak lehortu, baloreak transmititu, konfiantza erakutsi, eta nahi dutena egiteko gai direla erakusteagatik: bihotzez, eskerrik asko.

Zuen magiaren hazia landatu duzue eta betiko geratuko da euren bihotzetan eta geuretan. Mila esker Ali eta Arantxa.

Txanpiko gurasoak eta haurrak

Hitza bete, legea bete!

Orain dela lau urte Pedro Sanchez Espainiako gobernuburuak publikoki esan zuen ordua zela salbuespeneko espetxe-politika kendu eta espetxe-politika arrunta aplikatzen hasteko. 48 hilabete pasatu dira eta, egun, 195 presoetatik 106 Euskal Herriko espetxeetan daude, baina 70 oraindik Espainiako espetxeetan (19 dira Frantziako espetxeetan daudenak). Eta azken bi hilabeteetan ez da hurbilketarik izan, presoan senideek ehunka kilometro egiten jarraitzen duten bitartean. Gradu progresioari dagokionez, ia preso guztiak pasatu dira lehen gradutik (egoera gogorrena espetxean) bigarrenera azken urte hauetan, baina soilik 21 pasatu dira bigarren gradutik hirugarrenera (baimenak...), nahiz eta 60 presok baldintzak betetzen dituzten hirugarren graduan egoteko.

Azken urteetan argi azaldu du euskal gizarteak espetxe-araudi arrunta aplikatu behar zaiela euskal presoek: instituzio, sindikatu, eragile

sozial eta politiko, milaka mobilizazioek horrela frogatzen dute. Ez da nahikoa izan. Bidea egiten jarraitu behar dugu, elkarrekin, bizikidetzaren alde, bakearen alde. Hilaren 24an, ostirala, berriro elkartuko gara Kalegoen plazan, iluntzeko 20:00etan. Bukatzeko, gorde agendan urriaren 8ko data. Egun horretan Donostian elkartuko gara *Etxera bidea gertu* lemapean, hain motel doazen aurrerapausoak azkar daitezten.

Sare Elgoibar

Brigada feministak

Bi urte eta gero San Bartolome jaiak bertan dira, eta aurten inoiz baino prestatuago gatoz indarkeria matxistari aurre egiteko, jaiak, gaua eta kalea gureak ere badirelako. Aurtengo jaiak begira erasoan aurkako protokolo berria izango dugu, baita puntu morea ere, Maalako Gune Askean kokatuko dena. Narrutsik talde feministako kideok bertan izango gara edozein erasoan aurrean erantzuteko eta laguntza eskaintzeko prest.

Horrez gain, aurten lehen aldiz, etxera joateko "brigada feministak" jarri nahi ditugu martxan. Erasoan aurrean autodefentsa feminista aldarrikatzearen aldekoak gara eta herriko emakumeon saretzea ezinbestekoa ikusten dugu hori aurrera eramateko. Beraz, deialdi ireki bat jarri dugu martxan, brigada horiek osatzeko boluntarioak bilatzeko. Hauen lana erraza izango da: etxera bidean eskatzen digun edozein emakumeri laguntzea. Horretarako ahalik eta emakume gehien izatea komeni da, beti gutxienez bi libre egon daitezten. Parte hartzeko interesa dutenek *narrutsikfeministak@gmail.com* kontura email bat bidali dezakete edo gurekin kontaktuan jarri gure sare sozialen bitartez.

Guztionean artean lortu dezagun Elgoibarko jaiak eraso matxistarik gabekoak izatea, eta gozatu dezagun askatasunez eta elkartasun giro batean.

Narrutsik talde feminista



I. URTEURRENA

Maria Uribeberria Arzuaga

2021eko ekainaren 16an hil zen, 93 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, ekainaren 19an, 11:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunareneliz-parrokian. Joango zaretenoi, alde zuretik eskerrak.

Zure ondoan bizitza pozgarria izan da. Ez zaitugu ahaztuko.



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus



943 744 112



688 634 044



Sigma auzoko berdeguneak ez dituzte zaintzen:

"Sigma auzoko berdeguneak lagata daude azkenaldian. Ez dute belarra mozten, eta zatartuta daude. Herrigunea polit eta txukun mantentzen duten bezala, gure auzoan ere tratu berbera merezi dugula iruditzen zaigu, beraz, eskertuko genuke ingurune hau ere txukuntzea".



Su artifizialak bota zituzten 02:00etan:

"Badakit Trinitate Jaiak izan zirela asteburuan, eta badakit jendea festarako gogoz zegoela, baina uste dut horrek ez duela edozer egiteko baimena ematen. Nahikoa berandu izaten da tanborrada, baina tira, hori behintzat iragarrita zegoen eta bagenekien zarata izango genuela, baina su artifizialena gehiegizkoa iruditu zitzaidan. Txakurrek oso gaizki pasatzen dute, eta ordu horietan txakurrak zoro-zoro jartzeak ez du batere laguntzen. Etxe askotan adinekoak bizi dira, umeak, gaixoak... eta horiek guztiek gauzez atsedena behar dute. Hurrengorako, gogoan hartuko duzuela espero dut".



Aita Agirre plaza askoz hobeto dago autorik gabe:

"Trinitate jaietarako feriarik leku egiteko hustu zuten joan zen astean Aita Agirre plaza, eta zoragarria iruditu zitzaidan. A zelako leku dagoen hor parke edo aisialdirako gune berde eder bat sortzeko. Hausnarketarako gai moduan planteatu nahi nuke hau; Udalak gogoeta egin beharko luke gai honen inguruan. Elgoibarren ez dago apenas berdegunerik herrigunean, eta beharra badago. Autoentzako dauden aparkalekuak ere kontatu nituen: 25 bat daude Aita Agirren. Elgoibarrek daukan aparkaleku arazoa ez da 25 horiekin konpontzen, eta iruditzen zait badaudela aukerak auto horiek herritik gertu aparkatzeko, Guassen edo Sigman, esaterako. Espero dut proposamena aintzat hartzea Udalak. Herriak izugarri irabaziko luke, asfaltoaren ordez, Aita Agirren belarra landatuz gero".



Martitzenean iritsi zen Elgoibarrera pentsio duinen aldeko bizikleta martxa



Martitzenean iritsi zen Elgoibarrera Hego Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak antolatu duen bizikleta martxa. Astelehenean abiatu zen Donostiatik, eta bigarren etapan iritsi ziren gurera. Elgoibarko pentsiodunen taldeak Maalan egin zion harrera bizikleta martxari, Haritz dantza taldeko bi

dantzarik dantzatu duten aureskuarekin. Gero, manifestazioa egin zuten herriko kaleetan eta giza eskubideen plazan egin zuten ekitaldia, Alfonso Guillo eta Gabi Agorregomezkorta musikari elgoibartarren emanaldiarekin. 13 etapatan zeharkatuko dute Euskal Herria, eta hilaren 25ean amaituko dute Donostian.

Txirrindulariek eta oinezkoek debekatuta dute Azkarateko errepidetik ibiltzea

Aurrerantzean debekatuta izango dute txirrindulariek eta oinezkoek Azkarateko mendatea GI-2634 errepidetik zeharkatzea, Elgoibarko autobide sarrerako biribilgunearen paretik Azkoitiko Olasoko bidegurutzeraino. Azkarateko saihebideta moduan ezaguna den errepide

horretan trafikoaren abiadura "handia" delako hartu du erabakia Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren Sailak. Txirrindularientzako zein oinezkoentzako GI-3210 eta GI-3321 errepideetako "alternatiba bideragarria" dela esan du, eta horiek erabiltzeko gomendioa egin du.

Udal ordezkariak Elgoibarko enpresak babestu dituzte makina erremintaren azokan

Ane Beitia, Iosu Arraiz eta Maialen Gurrutxaga Elgoibarko Udal ordezkariak BIEMH 2022 biurteko azokan izan dira "eskualdeko enpresak babesten": Debabarrenatik 32 enpresa ari dira parte hartzen aurtengo azokan, eta horietatik 12 Elgoibarkoak dira: Berkoa, Burgelu, Cometel, Danobat, Fanuc, Geminis, Ideko, IMH, Maher, Sariki, Smartpm eta Unceta. Ane Beitia alkateak nabarmendu du Elgoibar dela Euskal Herriko makina-erreminta sektorearen bihotza eta feria hau oso garrantzitsua dela herriko enpresentzat: "4 urte dira (2019) azken edizioa ospatu zela, eta



nazioarteko ziurgabetasun handiko une hauen aurrean, gure enpresen lana sustatzeko aukera paregabea eskaintzen du azokak".

Jasangarritasuna izango du hizpide Arantxa Tapiak eguaztenean



Arantxa Tapiak Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuak hitzaldia emango du eguaztenean, ekainaren 22an, Elgoibarren. Garapen eredu jasangarria eta inklusiboa izango ditu hizpide. Aita Agirreko areto nagusian izango da, 18:30ean.

Txankakuan sartzen diren saltokientzat diru-laguntzak

Elgoibarko Udalak 2022an Txankakua merkatari elkartera sartzen diren saltokiei diru-laguntzak emango dizkie, urte horretako bazkide-kuotak ordaintzeko. Eskaera www.elgoibar.eus atariaren bidez egin behar da, irailaren 30a baino lehen. Udalak 9.000 euroko aurrekontu-partida erreserbatu du, baina eskaeren arabera kopuru hori handitzeko aukera egon daitekeela azaldu dute.

San Joan gaua ospatuko dute Mendaron

Mendaroko ludotekak eta gaztelekuak antolatuta, San Joan bezpera ospatuko dute ekainaren 23an. 17:00etan batuko dira ludotekan, kalejira prestatzeko, eta 17:30ean irtengo dira kalera. Gaztelekuan, hango erabiltzaileak batuko dira kalejirara. Gauean, 22:30ean, San Joan sua piztuko dute, Herriko Enparantzan.

Lila Saria sortu dute



Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko aldarriaren baitan Lila saria sortu dute Lilako Mahaiak eta Elgoibarko Udalak. Elgoibarko Udalerriko gizarte, hezkuntza, politika, ekonomia, kirol eta kultura bizitzako edozein arlotan emakumeen eta gizonen arteko eskubide eta aukera berdintasuna sustatzen lagundu duten eta horretan nabarmendu diren pertsonak zein erakundeek egindako lana publikoki aitortzea da helburua, eta dagoeneko aurkeztu daitezke hautagaiak. Hautagaitzak aurkezteko epea 2022ko uztailaren 15era arte, ostirala, egongo da zabalik ondorengo loturan: https://labur.eus/lilasaria_2022.

Hautaketa-epaimahaia honako hauek osatuko dute: Lilaren Mahaiko hiru kideak, Berdintasun Saileko teknikariak, Berdintasun Saileko arduradunak eta alkateak. Irabazleak oroigarri bat eta 500 euroko saria jasoko ditu. Saria ekitaldi publikoan emango da, Lila Emakumeen Etxearen urteurrenaren astean (iraileko hirugarren astean).

Santanetako kamiseta aukeratzeko bozketa

Mendaroko Santa Ana jaietarako kamiseten diseinua aukeratzeko lehiaketa antolatu zuen Mendaroko Udalak, eta orain, aurkeztu diren lau lanen artean gustukuena bozkatzeko aukera zabaldu die 16 urtez gorako herritarrei. *Aurten bai!*, *Santanak*, *Katasorgin* eta *Panderoa* izeneko lau diseinulanen artean aukeratu ahal izango dute. Domekan bukatuko da bozkatzeko epea. www.mendaro.eus atarian bozkatu behar da.

Jasangarritasun Energetikoaren Legea betetzen den egiaztatu nahi du Elkarrekin Podemosek

Klima aldaketari aurrea hartzea ezinbesteko ikusten dute Elkarrekin Posemos IUn, eta horren harira jakinarazi dute mozioak erregistratuko dituztela udaletan, 2019an onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko jasangarritasun energetikoaren legea betetzeko udal gobernua egiten ari direnaren berri izate aldera. Koalizioak Udalei eskatuko die sei hilabeteko epean ekintza-planak egin ditzatela, legearen helburuak osorik betetzeko. Plan horietan, proiektatutako neurriak, horietarako aurrekontua eta jarduteko egutegia jasotzeko eskatuko diete. Era berean, aldian-aldian - gutxienez urtean behin - eta herritarrei planean ezarritako helburuen irismenari eta planaren

betetze-mailari buruzko informazioa "modu irekian" ematea eskatu dio Udal Gobernuari.

Neurrien artean, legeak energiaren kontsumoa ehunekotan murriztea eta energia berriztagarriak erabiltzea ezartzen du, eta, aldi berean, instalazioak, ekipoak eta ibilgailuak berritzeko baldintzak ezartzen ditu, eta lehendik dauden eraikin guztien kalifikazio energetikoa eskatzen du. Era berean, legeak behartzen ditu udalak hiri-mugikortasuneko plan bat edukitzera eta erregai alternatiboak erabiltzen dituzten ibilgailuak sustatzera -besteak beste, garraio-zerbitzu publikoa-, eta atea irekitzen zaie udalerriei ibilgailu jakin batzuk hirigunean sartzera mugatzeko edo debekatzeko.

Landareak kendu eta baranda jarri dute Elgoibarren, ibai ertzean

Landarez osatutako hesia kendu eta plastikoz eginkoa ipini dute N-634 errepidea eta Deba ibaiaren artean dagoen bidean. Bide zati horretako segurtasuna eta garbitasuna handitzeko egin dutela azaldu dute Udaletik. "Landare-hesiko gune batzuk soilak zeuden eta zakar asko pilatzen zen tarte horietan. Ondorioz, landareak barandagatik ordezkatzea erabaki da segurtasuna eta garbitasuna bermatze aldera". Egur itxura duen plastiko birziklatuz egindakoa da azken egunetan ipini duten hesia. 110 metroko luzera du. Urazandiko autobus geltokitik gertu dagoen landaredia mantentzea erabaki dute, datozen urteetan Urazandi eta herrigunea lotzen dituen



zubia berritzeko dagoen asmoa dela-eta, eta landareok "babes funtzio bat" betetzen dutelako.

Hesiak eta bere lekuan jartzeko lanek 14.000 euroko aurrekontua (BEZ gabe) dute, eta Elkarkide S.L. enpresa ari da lanotaz arduratzen.



Herriko merkatarien laguntza jaso du Mekako ikasle talde batek

Ikasleak lan mundura hurbiltzeko ahaleginean, herriko merkatarien laguntza jaso du Elgoibarko Meka lanbide eskolak. Izan ere, administrazio kudeaketako lehen mailako ikasleek enpresa baten sorrerako eginkizunak, enpresa baten antolaketari buruzkoak, salerosketa prozesuak... modu erreal batean ikusteko aukera izan dute herriko zenbait dendatan: Pitxintxu, Ikus optika, Kala loradenda, Garate jantzi denda eta Astigarraga kirol denda. Horregatik dendariei eskerrak eman dizkiete Mekatik.

Labar artearen historia biltzen duen Arbasoen Harpea inauguratuko du Mufomik bihar

Hiru urte pasatxoko lanaren ostean, Arbasoen Harpea zabalduko dute bihar Mufomi museoan. Historiaurrera bidaia egitea ahalbidetzen duen koba da, eta bost gune desberdinetan banatuta, labar artearen historia bildu dute. Euskal Herriko, Espainiako eta Frantziako museo ezagunenetako irudi adierazgarrien kopiak egin dituzte, batzuk tamaina errealean eta besteak eskalan. Altamira, La Araña, Ekain, Lascaux edo Chauvet kobazuloetako irudiak ikus daitezke, animalienak gehienak, baina lehen giza irudien errepresentazioak ere egin dituzte. Orain dela 67.000 urtekoak dira ikus daitezkeen lehen irudiak, eta orain dela 7.000-6.000 urtekoak azkenak. 45 bat metroko luzeera dauka kobak, eta lau metroko altuera.

Labar arteaz gain, Elgoibarko espeleologiak ere izango du lekua. Datorren urtean 50 urte beteko dira Elgoibarren lehen espeleologia taldea sortu zenetik. Jose Manuel eta Angel Maria Tobajas anaiek eta Santos Diez hirukoteak sortu zuen talde hura 1973an, eta garai hartan erabiltzen zuten materiala jarriko dute ikusgai, besteak beste. Mufomi elkarteak eta espeleologia taldeak lotura estua izan dute beti, eta eskutik datoz oraingoan ere. Javier Vargas Mufomiko arduradunak eta Angel Mari Tobajasek prestatu dute Arbasoen Harpea, Mufomi museoaren sotoan. Bihar zabalduko



dute 11:00etan, baina aurrerantzean ere zabalik egongo da. Astegunetan 18:00etatik 20:00etara eta asteburuetan 11:00etatik 14:00etara. Aurrez hitzordua eskatzea gomendatu dute: 608 416 683 / info@mufomi.org

Dolmenen ibilbideari buruzko liburua aurkeztuko dute domekan, Karakaten

Aranzadi Zientzia Elkarteak Karakatek Irukurutzetara bitartean dagoen Dolmenen Ibilbidean egin dituzten aurkikuntzei buruzko liburua aurkeztuko du domekan, Karakateko aparkalekuan. 11:00etan izango da, eta ondoren umeentzako tailerrak egingo dituzte. Salda eta txorizoa ere banatuko dute. Morkaikok herritik elkarrekin igotzeko deia egin du, eta 9:00etan bilduko dira Kalegoen plazan. Horrez gain, Soraluzetik autobusez joateko aukera egongo da, Mendiola industrialdetik. 9:00etan egingo du lehenengo igoera autobusak, eta jaisteko azken ordua 13:30ean izango du. Errepidea itxita egongo da autoentzako.

Roman Garate jesuita hil da, 97 urterekin

Roman Garate Goyarzun jesuita hil zen joan zen zapatuan Loiolan, 97 urte zituela. Deustun bizi izan zen urteetan, eta hango unibertsitateko irakasle ere izan zen, baina azken urteak Loiolako erresidentzian egin ditu. Loiolan bertan egin zioten hileta elizkizuna eta han hilobiratu zuten, anaia Gotzon bezalaxe. Elgoibarko senideak ere izan ziren elizkizunean, eta Angel Ugarteburuk idatzitako hainbat bertso ere kantatu zituzten.



Elgoibarren iragana ezagutu dute 'Hurbiltzen' egitasmoko familiek

Hurbiltzen egitasmoan parte hartzen ari diren zenbait familia Elgoibarko Makina-Erremintaren Museoan izan ziren bisitan joan zen astean. Elgoibarren iragan industrialak nolakoa izan zen ezagutzeko aukera izan zuten Bea Ansola zuzendariaren azalpenei esker, eta ondoren, herrialde ezberdinetako jakiak dastatu zituzten. Elgoibarko Izarrak eta Udalak sustatzen dute euskarara *Hurbiltzen* egitasmoa, eta helburu argi bat du: Elgoibarrera etorri berri diren familiei harrera egitea, betiere euskara erdigunean jarriz, herriko beste familiekin harremanak sustatuz, kulturartekotasuna eta hizkuntza aniztasuna aitortuz eta elkarbizitza berdintasunean eraikiz.

Ekainaren 20rako arratsalde pasa bat antolatu dute. Jolasean jarriko dituzte familiek, eta ondoren, mokadutxo bat egingo dute. Ekintza horretara *Hurbiltzen* proiektua ezagutu nahi duten bestelako herriko familiek ere gonbidatu nahi dituzte arduradunek. Interesatuak izena eman



beharko dute: Elgoibarko Izarrako bulegora jo daiteke, edo, 943 741 746 zein Atxutxiamakako lan taldearen telefonora (747 489 048) deitu. Bestela, aisialdia@elgoibarkoizarra.eus helbidera idatzi daiteke.

Odol ateratzeak egingo dituzte gaur Elgoibarren, Jubilatuen Biltokian

Odol ateratzeak egingo dituzte gaur Elgoibarren, Jubilatuen Biltokian, 16:30etik 20:10era bitartean. Odola emateko txanda hartu behar da, Whatsapp zenbaki honetan: 623 328 408

Elgoibarko institutuaren beharrak ezagutzeko bisita egin du Jokin Bildarratz Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak

Elgoibar BHI ikastetxean bisitan izan dira Jokin Bildarratz, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburua, eta Amaia Urzelai, Gipuzkoako Hezkuntzako lurralde-ordezkaria. Elgoibarko Institututik jakitera eman dutenez, Kudeaketa Aurreratuaren Euskal Sariak banatzeko ekitaldian gonbidatu zituzten Elgoibarrera etortzera Hezkuntza alorreko bi agintariak.. Gonbidapena onartu ostean, joan zen astean izan ziren Elgoibarren, ikastetxea bertatik bertara ezagutzen. Ikastetxetik jakinarazi dutenez, zentroak dituen bi eraikinak ezagutu zituzten bisitan, azkenaldian egin dituzten hobekuntza lanak gertutik ikusteko.



Zentroaren errealitatea erakustez aparte, oraindik dituzten beharrak eta premiak zein diren jakinarazi zieten ikastetxeko arduradunek agintariei.

SARA BASURTO

Marrazkilaria

✍️🎧 Ainhoa Andonegi

Sorkuntza eta Diseinua ikasten ari da Sara Basurto (Elgoibar, 2002) Leioako unibertsitatean. Ume-umetatik marrazten du, eta hainbat ikastaro egin baditu ere, gehiena bere kabuz ikasi du, praktikatzen. Sekretua horixe dela dio, orduak sartzea, eta berak asko sartzen ditu. Askotan, marrazten hasi eta bazkaltzea ere ahazten zaio, orduak konturatu gabe pasatzen zaizkiolako. Lasaitasuna ematen dio marrazteak, eta bere denbora librearen zati handi bat eskaintzen dio marrazteari. Irudi errealistak marraztea gustatzen zaio, pertsonak bereziki. Japoniako manga komiki eta anime telesailen zalea da, eta estilo horretako pertsonaiak marrazten ditu. Eskuz zein digitalki marraztea gustatzen zaio. Udal Liburutegian ikastaroa eman zuen, eta aretoa bete zuen.



“Marrazterakoan trantze egoera batean sartzen naiz eta konturatu gabe pasatzen zaizkit orduak”

Sorkuntza eta Diseinua ikasten ari zara, Leioan.

Bai, Eibarren egin nuen Batxilergo artistikoa eta gero Sorkuntza eta Diseinua ikasten hasi nintzen. Lau urteko gradua da eta bigarren mailan nago. Oso pozik nago; argi neukan zer ikasi nahi nuen eta etxean esan nuenean ere, ez zidaten inolako oztoporik jarri. Etxe askotan gurasoek nahiago izaten dute beste mota bateko ikasketak egitea, baina nire kasuan argi ikusten

zuten marraztea gustuko nuela eta animatu egin ninduten. Nire amari ere gustatzen zaio alor hau, gainera. Jende askok uste du lan mundurako aukera gutxi dituela honek, baina nik aukera asko ikusten dizkiot. Ilustraziotik badago lana. Editorial askok behar izaten dituzte ilustratzaileak liburu-etako irudiak marrazteko, enpresa askok ere kontratatzen dituzte ilustratzaileak diseinu sektorera, irakaskuntzan ere sartu naiteke,

komikigintzan... Graduondokoak ere egin daitezke ikasketak osatzeko, eta irakasle batek esan zidan bazegoela ilustrazio anatomikoa lantzen duten graduondoko bat. Giza gorputzeko organoak marrazten espezializatu daiteke horri esker, eta horrekin ospitaleetan lan egiteko aukera ere egon daiteke. Niri interesgarria iruditu zitzaidan. Esan zuen medikuntzako ikasle asko joaten zirela graduondoko hartara, baina medikuntzaz asko jakin arren, askok ez zekitela marrazten, eta animatu egin gintuen. Ikusten ez dena marraztea da, gorputz barruko organoak, eta gu horretarako prestatuta gaude. Ni behintzat saiatuko naiz gustuko dudan zaletasun honetatik bititzen.

Noiz konturatu zinen ilustraziorako zeneukan pasioaz?

Beti izan dut argi bidea alor honetan egingo nuela; Ilustrazioa ez bazen, pintura ikasi nahi nuke. Ez dakit nondik datorkidan zaletasun hau, baina oso ume nintzela hasi nintzen marrazten. Amak askotan esaten dit ni arkatx bat eskuan nuela jaio nintzela. Barrutik irtetzen zait marraztea, barruan daramat.

Manga marrazkiei buruzko ikastaroa eman zenuen Liburutegian. Zer moduz joan zen?

Ondo, pozik geratu nintzen eta ikastarora etorri zirenak ere bai. Errepikatzeko eskatu zidaten, eta hori seinale ona da.

"Indar handia hartu dute anime estiloko telesailak, boom moduko bat egon da"

Nolatan hasi zinen manga estiloko ilustrazioak egiten?

Koronabirusaren ondorioz etxeratu gintuztenean, jendeak telebista gehiago ikusteari eman zion, eta horietako asko hasi ziren manga estiloko telesail japoniarrak ikusten. Indar handia hartu dute anime estiloko telesailak; *boom* moduko bat egon da. Manga komikiari esaten zaio, eta bizia duen irudiari, anime, hau da, telesailari. Lehen arraroagoa zen horrelakoen zalea izatea, baina orain oso modan dago. Niri aspalditik gustatzen zaizkit, umetan ere ikusten nituelako *One piece* edo *Dragon Ball* bezalako marrazki bizidunak ETB3n. Gero pertsonaiak kopiatzen hasi nintzen. Estilo hori asko gustatzen zait, eta telebistan ikusten nuena marrazten hasi nintzen. Kontatzen dituzten istorioak gustatzen zaizkit, eta baita erabiltzen dituzten koloreak ere. Kolore biziak erabiltzen dituzte, pertsonai askok, esaterako ile arrosa edo urdina izaten dute, eta horrek atentzioa deitzen dit. Ez da berez asko ikusten den gauza, eta niri beti gustatu izan zaizkit gauza alternatiboak. Manga estiloko jardunaldietan ere hartu izan dut parte noizbait. *Japan weekend* esaterako urtean bi aldiz egiten da, Amorebietan ere *Mangamore* egiten dute eta joan zen hilean *ExpOtaku* azoka egin zuten Gasteizen. Nire gelako lagun batzuekin joan nintzen, eta gure lanak saltzen egon ginen.

Marrazkiak gero pegatina estiloan ere inprimitzen ditugu eta jendeak asko estimatzen ditu. Prezioa jartzea zaila da, kontuan hartu behar delako erabiltzen dugun materiala eta sartutako ordu kopurua. Tamainaren arabera 4 euroko laminak edo 2 eurokoak saltzen ditugu gehien. Ez da diru asko, baina kontuan izan behar da nik marrazki bat egiten dudala, eta gero horren kopiak saltzen



ditudala, ahalik eta gehien. Ez dira originalak, kopiak baizik.

Zuk ere ile urdina daukazu. Zure estiloa ere fikziozko manga ilustrazioetatik dator?

Ba ez dakit, baina eragina izango du, seguru! Dena dela, artea ikasten dugun guztiok izaten dugu itxura desberdina. Gure fakultatean denetik ikusten da, jendea ausarta da horretan, eta kolore askotako ileak ikusten dira. Unibertsitatean berehala igartzen da nor den Arteetako ikaslea. Irakasleek ere esaten digute desberdinak garela eta gauzak ikusteko oso modu berezia daukagula. Objektu baten aurrean berehala hasten gara perspektiba aztertzen, eta normalean bestelako jendeak ez du horrelakorik egiten. Gure burmuina beste modu batean ordenatuta dago. Zientzia ikasleek ere beraien ikuspegi propioa dute, eta guk ere bai. Guk mundua interpretatzeko beste modu bat daukagu, eta horren eraginez, gauzak ikusteko era oso partikularra daukagu. Mentalitate oso irekia daukagu.

Barrutik marrazten duzula esan duzu, barrutik irteten zaizula marraztea. Berezko zerbait eduki behar da marrazteko ala ikasi ere egin daiteke ondo marrazten?

Bai, ikasi daiteke marrazten. Nik ere asko ikasi dut hasi nintzenetik gaur eguneraino. Manga estiloko pertsonaiak egiten hasi



"Abstraktuak ez dit ezer transmititzen eta ez zait gustatzen. Errealismoa gustatzen zait eta horrekin gozatzen dut"

nintzeneko marrazkiak ikusten ditut orain eta kaskarrak iruditzen zaizkit. Asko hobetu dut nik ere, eta gauza asko ikasi ditut. Beste gauza askotan bezala, konstantzia da garrantzitsua, orduak eskaintzea marrazteari. Urtebetean sekulako eboluzioa igarri dut nire marrazkietan. Fakultatean gauza pila bat erakutsi dizkigute, eta horrek asko lagundu dit, baina ordu asko eskaintzen dizkiot marrazteari. Saiatzea da gakoa. Jende askok uste du gaizki marrazten duela eta ez da saiitzen. Nire gelan ere badaude zientifikotik etorri diren ikasleak esaten zutenak ez zekitela marrazten, baina urtebetean sekulako obrak egiten ikasi dutenak.

Zer da gehien gustatzen zaizuna marraztea?

Pertsonaiak. Orain arte egin izan ditut pintura ikasketak, baina bereziki paisaiak margotzen nituen ikastaro horietan, eta niri pertsonaiak marraztea gustatzen zait gehien. Manga estilokoak egiten ditut asko, baina erretratu errealistak marraztea ere gustatzen zait. Pertsonaiak zein pertsonak marrazten ditut.



Irakasleek eta beste jende askok esaten dute hori ez dela artea, nahiago izaten dituzte irudi abstraktoak, baina nik erakutsi nahi dut hau ere artea dela. Esaten dute abstraktoa ez denak ez daukala mamirik, baina ni ez nago horrekin ados. Lehen horrela ulertzen zen artea, baina historikoki ere ikusi da arte korrante bat nagusi zenean, gero horren guztiz kontrakoa etortzen zela, aurrekoa erabat apurtuz. Orduan, gure aurreko korrantea abstraktuan oinarritzen bazen, oraingoa figuratiboan oinarritu daiteke, eta adituek jakin behar dute horretara egokitzen. Niri abstraktuak ez dit ezer transmititzen eta ez dut horrekin gozaten; errealismoa nahiago dut. Gure gelako askori pasatzen zaie gauza bera.

Zein teknika erabiltzen duzu?

Eskuz zein modu digitalean marrazten dut. Biak uztartzen ditut. Batzuetan dena egiten dut digitalki, beste batzuetan dena eskuz eta beste batzuetan biak uztartzen ditut. Eskuz marraztu eta digitalki margotu. Dena dela, beti daukat kuaderno bat eta akuarela sorta bat soinean, inspirazioa etortzen zaidan unean marraztu ahal izateko. *Fanart* kuadernoa deitzen diot, fanen edo zaletuen koadernoan esan nahi du. Koaderno honetan marrazki originalak egiten ditut. Marrazten ditudan pertsonaiak existitzen dira, marrazki bizidunetakoak dira, baina nik ematen diot bakoitzari testuingurua, postura, espresioa, kolorea... Marrazki pila bat ditut, eta gustatuko litzaidake egunen baten erakusketa bat egitea.

Zer ematen dizu marrazteak?

Marrazten dudanean trantze egoera baten sartzen naiz. Hasarre nagoenean, adibidez, marrazten jartzen naiz eta pasatu daitezke bi ordu marrazten nagoela konturatu gabe. Liburu batean irakurri nuenez, artista askori gertatzen zaio hori. Hainbeste kontzentratzen gara, non burmuinaren funtzio bat pizten den. Burmuina ezker eta eskuin hemisferioetan banatzen da, eta nolabait esateko, gure alde sortzailea pizten da trantze egoera horretan, alde logikoa baztertuz. Orduan ez gara denboraz ohartzen. Halako batean bazkalordua dela konturatzen naiz, eta orduan ikusten dut zenbat ordu eman ditudan marrazten! Behin goizeko 5:00ak arte egon nintzen, konturatu gabe.



'Esnatu naiz' kabareta taularatuko du Andoni Mutiloak bihar Mendaron



Nortasuna, generoa eta sexu-joera ezberdinak lantzen dituen obra da *Esnatu naiz* kabareta, eta ikuskizun honen bitartez, LGBTI+ kolektiboko pertsonak oraindik ere Euskal Herrian normaltasun osoz bizitzeko dituzten arazoei buruzko gogoeta sustatu nahi du Andoni Mutiloak (Hernani, 1976). Elur da obrako protagonista, jatorri euskalduna duen baina Londresen bizi den trans artista bat. Kabaret honetan artistaren atzean ezkututzen den pertsona ere ezagutuko dugu: Pello. Euskalduna da, baserritarra, eta hamar urte atzerago Euskal Herritik alde egitea erabaki zuen, bertan ezinezkoa zitzaiolako bere nortasunarekin bat eginda lasai bizitzea.

San Agustin kulturgunean izango da emankizuna, doan, 19:30ean hasita. Ez da gonbidapenik beharko.

Santa Ana jaiak antolatzeko bilera irekia antolatu du Mendaroko Udalak

Santanetako jai-egitaraua ixteko beste bilera bat antolatu du Mendaroko Udalak ekainaren 24rako (barikua). Lagun Betikoak elkartearen ondoko lokalean egingo dute bilera, 19:00etan. Udaletik parte hartzera eta ekarpenak egitera deitu dute.

Zabaldute Mendaroko haurren danborradarako izena emateko epea

Santanen barruan, Haurren Eguna ospatuko dute uztailaren 24an eta ohi legez danborrada antolatuko du Udalak Arno Guraso Elkartearen laguntzarekin. 18:00etan izango da danborrada, eta LH1etik LH6ra arteko ikasleek izango dute parte hartzeko aukera. Hala ere, HH5ekoei ere zabaldute aukera egun horretan danborrada aurretik goxokiak banatzen ibiltzeko. Danborradara joan nahi dutenek Arnok gurasoen artean zabaldute duen formularioa bete beharko dute. Azken eguna: ekainaren 28a. Entsegu egunak uztailaren 5, 12, 19 eta 21ean izango dira. Frontoian egingo dituzte entseguak, 19:30ean, eta bai entsegu egunetarako eta baita danborrada egunerako ere gerriko bat inguratzeko eskatu diete antolatzaileek gurasoei. Danborrak Arnokoei eurek banatuko dizkiete.

Santanetako paella lehiaketarako izena emateko epea, zabalik



Uztailaren 22tik 26ra bitartean ospatuko dituzte Mendaron santanak eta uztailaren 23an egingo duten kuadrillen eguneko paella lehiaketarako izena emateko epea zabaldute zuen martitzenean Udalak. Hilaren 26ra arte egongo da izena emateko aukera Uztargi, Ormola eta Aitzbeltz tabernetan. 10 euro ordaindu beharko dira eta prezioaren barruan sartuko da Udalak banatuko duen kamiseta ere. Paella lehiaketa 13:00etan hasiko da eta 14:30erako amaituta izan beharko da. Parte-hartzaileek derrigorra izango dute Udalak emandako osagaiak erabiltzea.

Kontzertu berezia emango du bihar Elgoibarko Udal Musika Bandak Gospel talde batekin batera



Goizargi gospel taldearekin batera ariko da bihar Elgoibarko Udal Musika Banda Kalegoen plazan, 22:30ean hasita. Euskal Herriko hamabi gospel kantarik osatzen dute Goizargi gospel taldea eta Ramon Scalek zuzentzen du. Eskarmentu handiko zuzendaria da Scale eta nazioarteko gospel abeslari ezagunekin egin izan du lan. Gaur egun, Bartzelonako Gospel Messengers gospel taldea, Manresako Esclat Gospel Singers taldea eta Bartzelonako Lizeo kontserbatorioko gospel abesbatzak zuzentzen ditu eta 2005az geroztik Gospel Rajadell nazioarteko campuseko

zuzendari pedagogiko eta artistikoa ere bada. Piano-jolea eta moldaketagilea da izatez Scale eta Chucho Valdes, Omara Portuondo, Paquito de la Rivera eta Jerry Gonzalez musikari ezagunekin kolaboratu izan du.

Elgoibarko Udal Musika Bandak ere ez du estreinako aldia era honetako kontzertu bereziak antolatzen. 2016an, esate baterako, Rock gaua antolatu zuten eta herriko musikarekin batera jo zuten Maalan, eta urtebete geroago Celtas Cortos taldearekin batera aritu ziren Kalegoen plazan.

Egutegirako argazki lehiaketa antolatu du Elgoibarko Udalak

2023ko egutegirako argazkiak aukeratzeko argazki lehiaketa antolatu dute Ongarri Argazki Taldeak eta Elgoibarko Udalak. Gaia librea izango da, eta aurkeztu diren argazki guztiak aurten ateratakoak izan beharko dira. Lehiaketan Elgoibarren jaio, bizi, ikasi edo lan egiten dutenek parte hartu

ahal izango dute eta urriaren 6a artekoa izango dute argazkiak aurkezteko. Guztira 13 argazki sarituko ditu Udalak, 80na euroko bonoarekin. Informazio gehiagorako Elgoibarko Udalaren Euskara Sailera deitu edo idatzi dezakezue: euskara@elgoibar.eus edo 943 744 366.

'Erdaldun berrien kluba' bakarrizketak itxiko du Tertuliak programako ikasturtea

Olatz Pagalday aktoreak Arrasate Euskaldundu Dezagun euskara elkarteak sortutako bakarrizketa emango du ekainaren 23an, Tertuliak programaren aurtengo ikasturteari amaiera emateko. Sinopsiak honela dio: Irantzuren klubean gutxi dira. Lau katu. Eta sekula ez dute saririk jaso. Ez dituzte telebistan aipatzen. Ez diete elkarriketarik egiten. Irantzuren kluba ezezaguna da.

Klandestinoa. Badakizue zergatik? Irantzuren kluba erdaldun berrien kluba delako, eta erdaldunberri gehienek ez dakite erdaldun berriak direnik. Izan ere, zer arraio da erdaldun berria izatea?.

Elgoibarko Izarrak, Elgoibarko Udalak, AEK euskaltegiak eta Udal Euskaltegiak antolatu dute saioa eta Aita Agirre kulturguneko areto nagusian izango da, 19:00etan hasita.

'Apaiz kartzela' dokumentala Mendaron, ekainaren 25ean



Oier Aranzabal, Ritxi Lizartza eta David Palleresek zuzendutako *Apaiz kartzela* dokumentala emitituko dute ekainaren 25ean, larunbata, Mendaron. Proiektzioa San Agustin antzokian izango da, eta 19:30ean hasiko da. Zamorako apaizen kartzelan (1968-1976) preso zeuden lau apaizek berriro bisitatu zuten kartzela, eta, zenbait kasutan hamar urte baino gehiagoko zigorra ezarri zieten mezetan frankismoaren errepresioa salatzeagatik. Hain zuzen ere, Franco izan zen, Vatikanoarekin sinatutako Konkordatua erabiliz, Kartzela Konkordataria sortu zuena, munduko bakarra erlijiosoentzat. Dokumentalak Madril, Galizia, Katalunia eta Euskal Herriko 53 erlijiosok egindako benetako bidaiaren historia kontatzen du.



Kantaldia egingo dute gaur Mendaron Ameikutz musika eskolakoe

Ikasturte bukaerako jaialdia egin zuten atzo Herriko Enparantzan Mendaroko Ameikutz musika eskolako ikasleek eta gaur eskolako bi irakaslek, Juan Arriola *Artañolak* eta Iñigo Ruiz de Gordejuelak, eta haien lagun Malwina Masternak musikariak kantaldia eskainiko dute, leku berean. Ameikutzetik jakinarazi dutenez denontzat ezagunak diren euskal kantak interpretatuko dituzte, lehengoak eta oraingoak, euskal kantari ezagunenak nahiz kanta herrikoiak. Kantaldia 19:30ean hasiko da.

Zirkora gerturatzeko aukera izan dute Mendaroko eskola-umeek



Zirkoaren mundua gertutik ezagutzeko aukera izan zuten astelehenean, Trinitate Txiki egunez, Mendaroko eskola-umeek. Xomorro taldekoak gonbidatu zituzten herrira Arno Guraso Elkartekoek, eta oreka jolasak, malabareak eta beste hainbat jolasetan aritu ziren umeak, begiraleen laguntzarekin. Argazki gehiago eta bideoa ikusteko: www.barren.eus.



Dantza modernoko ikasleen jaialdia izango da gaur, Mendaron



Dantza modernoko ikasleek ikasturte bukaerako jaialdia emango dute gaur Mendaron. Frontoian izango da ikuskizuna, 21:30ean hasita. Guztira, 50 bat ikaslek parte hartuko dute, bost bat taldetan banatuta, eta talde bakoitzak bi edo hiru dantza egingo ditu.



TRINITATEAK GIRO EDERREAN

✍ Ainhoa Andonegi

📷 Asier Orbea / Ainhoa Andonegi / Ainara Argoitia



Festa gogoz zeuden herritarrak, eta festa izan zuten asteburuan. Bi urteko etenaren ostean ospatu diren lehenengo jaiak izan dira Trinitateak, eta aspaldian izan ez duen itxura hartu zuten gure bi herriek. Jendetza ibili da kalean, egunez zein gauetz, eta giro ederrean joan dira Trinitateak, bai Elgoibarren eta baita Mendaron ere. Argazki gehiago eta bideoak:

barren.eus









Angel Ibarluzeak irabazi du Lehendakari Saria bola-joko txapelketa

Bolari Eguna ospatu zuten zapatuan Gipuzkoako Hiru Txirlo bola-joko txapelketan aritu diren bolariak, Soraluzen. Ospakizunen barruan, Lehendakari Saria txapelketa ere jokatu zuten Gipuzkoako txapelketan lehen 64 postuetan sailkatu diren bolariak, San Andresko bolatokian. Kanporaketa erara jokatzeko txapelketa hau eta parean tokatu zitzaizkion aurkari guztiak kanporatu zituen bakarria izan zen Angel Ibarluzea elgoibartarra.

Lehiaren ostean, elkarrekin bazkaldu zuten bolariak Txurruka jatetxean, Ander Ariznabarretaren musikak girotuta. Bazkalostean, Juan Kruz Arizaga "Korta" eta Juan Klaudio Unamuno omendu zituzten, "hiru txirlo bola-jokoaren alde egin duten eta egiten duten lana eskertzeko". Bolari Egunari amaiera emateko Gipuzkoako 51. Hiru Txirlo Bola-joko Txapelketako sari banaketa ekitaldia egin zuten, Bolajokorako euskal federazioaren eskutik. Eibarko Garikoitz Rodriguezek jantzi du aurtengo txapela, eta azken irabazleak jarri zion buruan irabazlearen txapela, 2019koa irabazi zuen Angel Ibarluzeak (irudian).



Eskola kirol egokituari buruzko informazio bilera irekia, gaur

Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federazioari eta eskola-kirol egokituaren programari buruzko informazioa emateko bilera irekia antolatu dute gaurko (ekainak 17). Olaizaga kiroldegian izango da, 16:30ean. Desgaitasuna duten gazteei hastapen-programa bat eskaini nahi diete, hainbat kirol praktikatzeko aukera emanez, beren beharretara ahalik eta gehien egokitzen den talde eta programazio mota batekin. Proposamen honek astegunetan jarduera fisiko egokitu egiteko saioak biltzen ditu, lehorrean zein uretan, eta, ikasturtean zehar, gainera, asteburuetan jarduera fisiko eta kirol irekietan parte hartzeko aukera ematen diete. Jarduera horiek hainbat erakunde eta klubekin elkarlanean antolatzen dituzte: futbol egokituko topaketak, denontzako mendi-ibiliak, surf inklusiboko jardunaldiak, sentsibilizazio jardunaldiak... Edozein zalantza argitzeko, hona hemen arretarako kontaktuak: multikirola@gkef-fgda.org / 943 462 514.



Eneko Ortega txapeldunorde Gipuzkoako Bakarkako Erlojupeko txapelketan



👉 Martin Early

Emaitzak pilatu eta pilatu ari dira Elgoibarko Lagun Taldeako txirrindulariak, eta Eneko Ortega da gehien nabarmentzen ari denetariko bat. Junior mailako txirrindulariak Gipuzkoako Bakarkako Erlojupeko Txapelketan lehiatu ziren martitzenean Aizarnazabalen. Beñat Garaiarrek (Augar-Laguntasuna) egin zuen denborarik onena 14,5 kilometroko ibilbidean (20:20). Irabazleak baino 9 segundo gehiago behar izan zituen Eneko Ortegak (Besa-Laboral Kutxa). Aurreko asteburuan Nafarroako Klasikoa jokatu zuen Ortegak Gipuzkoako selekzioarekin, eta hor ere nabarmendu zen. Selektzioaren artean posturik onena (45) lortzeaz gainera, podiumera igo zen, tarteko helmugan sailkapenean gailendu zelako. Txirrindulari elgoibartar gehiago ere igo dira podiumera joan den asteburuan. Zapatuan, Urretxuko eskolarteko lasterketan lehiatu ziren alebinak eta infantilak, eta bi garaikurrekin itzuli ziren. Aroa Saez infanbila nagusitu zen Urretxuko eskolarteko lasterketan, nesketan, eta Enaitz Iraolagoitiak hirugarren egin zuen alebinetan, mutiletan.

Sailkapen nagusiko hirugarren postuan iritsiko da Lariz azkenaurreko probara

Euskal Herrian jokatzeko diren mendi bizikleta txapelketarik garrantzitsuenetarikoa den Green Series XCO txapelketan lehiatzen ari da Iñigo Lariz, eta zazpi proba jokatu eta gero, bere kategoriako (Master 30) sailkapenean hirugarren postuan ailegatuko da azkenaurreko probara, ekainaren 19an Barakaldon jokatu dute lasterketara. Zirkuituko azken bi probetan podiumeko hirugarren kaxoira igo da Lariz, Zallan eta Amurrion jokatu dute lasterketetan. Emaitza horiei esker, sailkapen nagusiko hirugarren postuari eutsi dio Elgoibarko Lagun Taldea-Gobike taldeko txirrindulariak. Larizek 950 puntu ditu, 1160 ditu Gaizka Larzabalek eta 1200 Iñaki Meabek, liderrak.



👉 Carlos Soguero

Brontzezko domina eskuratu du Uxue Etxeberriak Gasteizko gimnasia erritmiko txapelketan

Open Internacional Gimnasia Vitoria nazioarteko gimnasia erritmiko txapelketa jokatu zuten Gasteizen, ekainaren 3tik 5era bitartean. Eibarko Ipurua taldeko amateur mailako bost gimnasta lehiatu ziren Gasteizen, tartean Uxue Etxeberria eta Joshelin Padilla elgoibartarrak. Etxeberria eta Padilla mazoekin lehiatu ziren, eta Etxeberriak bigarren egin zuen, bere taldekide June Txurrukarekin berdinduta. Puntututan berdinketa izan arren, Txurrukak hiru dezima gehiago jaso zituen interpretazioan, eta honenbestez, berak eskuratu zuen zilarrezko domina eta Etxeberriarentzat izan zen brontzezkoa. Joshelin Padilla bosgarren postuan sailkatu zen.



Uxue Etxeberria, erdian.

Pala txapelketako finalerdiak, domekan



Elgoibarko Emakumezkoen Binakako 9. Pala Txapelketako finalurrekoak jokatu dituzte domekan, ekainaren 19an, Kalegoen plazako pilotalekuan. 11:45etik aurrera jokatu duten lehen finalerdian Idoia Arrillagak eta Eva Ibarrolak Yolanda Mateosen eta Maria Badiolaren aurka jokatu dute. 12:45etik aurrera jokatu dute bigarrenengo finalerdia: Amaia Aizpuruk eta Elaia Zinkunegik osatutako bikoteak Maite Barruetabeñak eta Iratxe Barruetabeñak osatutakoaren aurka.

Hamazazpi talde lehiatuko dira Trinitateetako xake Txapelketan



Trinitate Jaietako Taldekako Xake Txapelketa antolatu du Zubi-Ondo taldeak domekarako, ekainaren 19rako. Euskal Herri osoko hamazazpi taldek eman dute izena, besteak beste, Santurtzitik, Barakaldotik, Durangotik, Donostiatik, Gasteiztik, Zumaiaitik, Arrasatetik edo Hondarribiatik etorriko dira xakelariak. Etxeko taldeak, Zubi-Ondok, ere izango du ordezkaritza. Olaizaga kiroldegian jokatu dute txapelketa, 10:00etatik 13:30era bitartean.

LANA

Eskaerak

Umeak zaintzeko prest nago, orduka. Esperientzia eta erreferentzia onak ditut.
632 721 342

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Malgutasuna. 632 915 336

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka. 658 273 486

Adinekoak zainduko nituzke. Esperientzia handia eta erreferentziak ditut. Autoa eta gidabaimena ere bai, eta baserrietan lan egiteko aukera. Soziosanitario titulua daukat. 602 834 107

Adinekoak zainduko nituzke, orduka. Esperientzia handia eta erreferentziak ditut. 631 030 642

Etxe, enpresa eta tabernetan garbiketa lanak egiteko pest nago. Orduka. Esperientzia eta erreferentziak ditut. 632 721 342

Asteburuetan adinekoak zainduko nituzke. Titulua daukat. 618 439 041

Biltegiko lanetan edo montajeetan egingo nuke. Urteetako esperientzia daukat enpresa munduan. Euskalduna naiz, gidabaimena daukat eta lanean hasteko prestutasun osoa. 655 721 822

Adinekoak zainduko nituzke, goizetan edo gauetan. Titulua daukat. 643 071 900

16 eta 17 urteko bi neska gara eta lan egin nahiko genuke, ekainean eta uztailan, umeak zaintzen edota merkataritzan, dendaren batean. 609 715 085

Eskaintzak

Etxeko langilea behar da uztailan ordezkapen bat egiteko. 648 203 775

Bi ume ikastolara eramateko pertsona bat behar dugu, irailetik aurrera. 669 505 995

Ile-apaintzaile euskaldun eta esperientziaduna behar dugu, Zarauzko ile apaindegi batean lan egiteko. 943 890 281


ETXEBIZITZAK

Bi pertsonantzako apartamentua alokagai Cadizen, uztailera. 653 733 457

IBILGAILUAK

Scooter tolesgarria salgai. I-Lase Apex modelo, erdiberria, egoera ezin hobean. 659 329 118



 <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Euzkadi Euzkoako Elkar Administrazioak Lurralde Komunitateak</p>  <p>ROSA Mª PINTADO</p> <p><i>Etxaldean Administrazioako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalde de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Gure komunitatean obrak egin behar ditugu teilatuan eta 25.000 euroko aurrekontua onartu dugu. Egin berri dugun batzarrean gehiengoz erabaki dugu banketxe batean mailegua eskatzea. Banketxean eskatu digute etxejabe guztiok sinatzea maileguaren kontzesioa. Baina 10 etxejabeetatik lauk dagokigun kopurua ordainduko dugu mailegua eskatzeko asmorik gabe. Etxejabeen bileran jakinarazi zen maileguaren ordainketa komunitate guztiari dagokiola hainbat etxejabe mailegua eskatu ez arren. Nola jokatu behar dut egoera honen aurrean?</p> <p>Eraikin bateko jabeak derrigortuta daude gastu komunak ordaintzera, batez ere guztiari dagozkien elementuen mantenu, konponketa eta zaintzari dagozkionak. Baina legeak ez du esaten nola egin behar den ordainketa, ezta nola finantzatu ere. Beraz, etxejabe bati ezin zaio galarazi dagokion diru-kopurua ordaindu eta betebeharretatik kanpo gelditzea.</p> <p>Zuk diozu, batek ordaindu ezean, banketxeak komunitate osoaren aurka jotzea nahi duela. Eta zuk diozunaren arabera, banketxeak ez du onartzen bakoitza bere zatiaren erantzule baino ez izatea. Horren gainetik, ardura solidarioa eskatzen du, hau da, edozeinek ordaindu ezean beste mailegu-hartzaile guztiak ordaindu behar izatea.</p> <p>Horrela, baliteke etxejabe batek bere zatia ordaintzea eta gero beste etxebizitza bati dagokion zatia ordaindu behar izatea. Beraz, ez da gomendagarria egoera hau onartzea. Hori egin beharko litzateke mailegu-hartzaile guztiak ordainduko duten ziurtasuna izanez gero.</p> <p>AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
---	--

Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora,
barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo 688 634 044 bidalita.



Zorionak, **Mikel**, bihar 4 urte beteko dituzulako. Asko maite zaitugu. Etxekoan partez.



Zorionak, **Ayan**, domekan 3 urte beteko dituzulako. Muxu asko etxekoan partez.



Zorionak, **Maria**, astelehenean 13 urte beteko dituzulako. Oso ondo pasa! Etxeko guztion partez, muxu asko.



Zorionak, **Elene**, bihar 8 urte beteko dituzulako. Familiako guztion, eta bereziki, ahizpa Sararen partez. Ondo pasa oporrak!



Zorionak, **Markel!** Ondo-ondo pasa eguna! Muxu potolo bat Elgoibartik eta Errioxatik. Txokolate jana noiz? Gu joateko prest! Eta, tia, zuri ere, zorionak!

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

Zabaldu atea BARREN astekariari, eta egin zaitetz harpidedun!

Aspaldi bazabiltza
BARREN etxeko buzoian
jaso nahian edo
jaso nahi lukeen beste norbait
ezagutzen baldin baduzu,
oraintxe duzu aukera.
Deitu, idatzi edo
etorri bulegora.

943 744 112

barren@elgoibarkoizarra.eus
Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.



EXPRESS ESKAINTZAK!

WAU28S42ES BOSCH ARROPA GARBIGAILUA



- 8 kg karga
- 1.400 b/min
- Garbigarri eta leungariarentzako autodosifikazio adimenduna

669 €

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

17 BARIKUA

16:30 Odol ateratzeak.

Jubilatuen biltokian. Txanda hartzeko: 623 328 408

19:00 Udako Festa.

Beatriz Egizabal eta Getari Etxegarairen bakarriketak, eta Ane Zabaleta eta Deñe Garciaren kontzertua. Doan, Lilan.

19:30 Kantaldia, Mendaron. Herriko Enparantzan.

20:00 'Biraka Exhibition Center'. Biraka taldekoen kurtso amaierako jaialdia. Herriko Antzokian.

21:30 Dantza modernoan jaialdia, Mendaroko frontoian.

18 ZAPATUA

19:30 'Esnatu naiz' kabareta. Mendaroko San Agustin aretoan.

22:30 Udal Musika Bandaren eta Goizeder Gospel taldearen kontzertua. Kalegoen plazan.

19 DOMEKA

10:00 Trinitateetako xake txapelketa. Olaizaga kiroldegian, Zubi Ondo elkarteak antolatuta.

11:45 Elgoibarko Pala Txapelketako finalerdiak. Kalegoen plazan.

11:00 Dolmenen Ibilbideari buruzko liburuaren aurkezpena, Karakaten. Umeentzako tailerrak eta salda eta txorizo banaketa egongo dira.

22 EGUAZTENA

18:30 Hitzaldia: Arantxa Tapia Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailburuak emango du. Aita Agirreko areto nagusian.

18:30 'Zerua eta garia' ekimenaren aurkezpen bilera. Mendaroko udaletxeko pleno aretoan.

23 EGUENA

19:00 Bakarriketa umoretsua: 'Erdaldun berrien kluba'. Elgoibarko Izarrak, Udal Euskaltegiak, AEK Euskaltegiak eta Udalak antolatuta, Aita Agirreko areto nagusian.

17:00 San Joan gaueko kalejira prestatzea, Mendaroko ludotekan.

17:30 San Joan gaueko kalejira. Mendaroko ludotekan hasita.

18:00 San Joan gaueko kalejira. Mendaroko gaztelekutik.

22:30 San Joan sua piztea. Mendaron, Herriko Enparantzan.

24 BARIKUA

19:00 Nahaste Borraste kirol proba. Kimetz elkarteak antolatuta, Kalegoen plazan.

19:00 Santana jaietako egitaraua ixteko bilera irekia, Mendaroko Lagun Betikoak egoitzan.

Aurrematrikulazio epea zabalik!

Irakasle eta metodologi berriak
Iraila doan izango duzue metodologi berria frogatzeko!
Etorri eta informa zaitez!

- Eskolako ingelesaren errefortzua
- Cambridgeko azterketak. LH, DBH eta helduak
- Talde Txikiak

667 261 248

IKASGO
ACADEMY

Basarte 13, behea - Elgoibar
akademiaelgoibar@gmail.com



LAGUNAK
colchonera textil hogar

Komertzioekin lan egiten dugu (etxeko ehungintzekin eta jantziekin)
TARIFA BEREZIAK!

Ba al duzu konpondu beharreko arroparik?
Ekarri, eta berri-berri utziko dizugu, zeure neurrira.
Jantzigintzarako makina bereziak ditugu,
edozein ehun konpondu ahal izateko:

PUNTUZKO EHUNAK, TXIRRINDULARITZAKO MAILOTAK ETA KULOTEAK, LARRUA, ZETA ETA ABARI LUZE BAT...

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978
www.textillagunak.com

Botika ordutegiak: 09:00-13:00 7 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00 Iluntzean: 20:00-22:00 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

<p>17 BARIKUA Egunez Barrenetxea Iluntzean Barrenetxea</p>	<p>18 ZAPATUA Egunez ■ Ibañez / ■ Yudego Iluntzean ---</p>	<p>19 DOMEKA Egunez ■ Ibañez Iluntzean ---</p>	<p>20 ASTELEHENA Egunez Garitaonandia Iluntzean Garitaonandia</p>
<p>2121 MARTITZENA Egunez Yudego Iluntzean Yudego</p>	<p>22 EGUAZTENA Egunez ■ Fernandez Iluntzean Barrenetxea</p>	<p>23 EGUENA Egunez Yudego Iluntzean Yudego</p>	<p>24 BARIKUA Egunez ■ Oruesagasti Iluntzean Yudego</p>
<p>■ Fernandez: Herriko enparantza,4 Garagartza (Mendaro) 943 756 142</p>	<p>■ Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638</p>	<p>■ Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384</p>	<p>Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00 Esther Mendinueta Berastegui Urkizu pasealekua, 6 (Eibar) 943 820 106</p>

Eta, Debabarrenean zer?

Gaur, ekainak 17, 22:00etan, Deban. Ibil Bedi taldearen kontzertua.

Irunberri, Erriberri, Zangoza eta Iruñeko bost gaztek osatzen dute Ibil Bedi taldea: Amets Aranguren (saxoa, ahotza eta teklatura), Eder Escalera: (bateria), Javier Larrañeta (baxua), Ibai Osinaga (gitarra eta ahotza) eta Areta Senosiain (biolina eta teklatura). 2019ko ekainean kaleratu zuten lehenengo diskoa *Berandu baina garaiz* izenpean. Iaz ikusi zuen argia taldearen bigarren lan luzeak: *Beltxarga Beltza*, konfinamenduarekin batera ondutako hamaika kantu biltzen dituen.



II. URTEURRENA

Margarita Aranberri Mendizabal

2020eko ekainaren 17an hil zen, 88 urte zituela.

**Udaberriko hostaizka
beti ikusgarri
zuzenki, baiña goxo
famili zaindari
Manolokin batera
duoan kantari
bihotzian zaittugu,
amama Margari.**



Uztailaren 8tik 10era ospatuko dituzte Urazandiko jaiak



Hiru urtetan ospatu zituzten Urazandi auzoko jaiak, 1981etik 1983ra bitartean, baina arrastoa laga zuten auzokoen eta herritarren artean, eta jai haiek berreskuratzeko batu ziren dozena erdi bat auzotar duela hiru urte. Urajai elkarteak sortu zuten, 2021eko uztailean jaiak antolatzeko, baina Koronabirusaren eraginez, baina, iaz ere ezin izan ziren jaiak ospatu, eta Urazandin ere ez zen jairik egon. Aurten bai! Aurten dena prest dago Urazandi auzoko festak ospatzeko.

Jon Rodriguez da antolakuntza lanetan ibili den auzokideetako bat. Jaien oroitzapen lausoa du Rodriguezek, oso ume zelako artean, baina beti entzun izan ditu jai haien inguruko kontuak, eta parkeko solasaldi batean sortu zen jaiak berreskuratzeko ideia. Bere ustez, Urazandiko auzokide sentimendua indartu egin da Urazandiko Auzoko Elkarteak sortu zenetik. Auzotarren bizikaltate hobetzeko eskaerei bide emateko eratu zuten elkarteak 2019an, eta horietako bilera batean ateratu zen jaiak berreskuratzeko ideia.

Esan eta egin. Uztailaren 8tik 10era egingo dituzte jaiak, eta aste honetan bertan aurkeztu dute egitaraua. Auzotarren oroimenean iltzatuta daude 80ko hamarkada hartako jaiak, eta bereziki, sokamuturra dute gehienek gogoan. Aurten ez da sokamuturrik egingo, ezta su artifizialik ere ez, baina "adin guztietako herritarrentzako" egitaraua ondu dute.

UZTAILAK 8, BARIKUA

19:00 Jaiak hasteko, suziri traka, Urazandiko parkean.

Ondoren, dardo, txapel, "chaves" eta igel toka txapelketa. Herri Eskolako patioan.

22:30 Imanol DJa. Herri Eskolako patioan.

UZTAILAK 9, ZAPATUA

10:00-17:00 Auto klasikoaren kontzentrazioa. Herri Eskolako patioan.

11:00 Historiaurrera bidaia. Jose Julian Markezen erakustaldia. Herri Eskolako patioan.

Ondoren, trikitilarien kalejira, auzoan zehar.

15:00 Herri bazkaria, Herri Eskolako patioan.

17:00 Imanol DJa, Herri Eskolako patioan.

17:30 Zezentxoak, Ruso Zezenak-en eskutik. Herri Eskolako patioan.

19:00 Kalejira, Mendaroko Bizi Poza txarangarekin.

23:00 Imanol DJa. Herri Eskolako patioan.

UZTAILAK 10, DOMEKA,

12:00 Tortilla txapelketa, herri-jokoak, puzgarriak. Herri Eskolako patioan.

17:00 Txokolate jana, BM supermerkatuak eskainita. Urazandiko parkean.

19:00 Jaien amaiera iragartzeko suziri traka.



**Angel Albizu
Astigarraga**

2022ko maiatzaren 24an hil zen,
82 urte zituela.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu
jasotako doluminak, bai eta
hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Beti gure bihotzean izango zaituztegu.
Bakea zuekin izan dezazutela.**



Etxekoak



**Arrate Elizburu
Arriola**

2022ko maiatzaren 29an hil zen,
76 urte zituela.



I.URTEURRENA
Alejandro Alvarez Galdos

2021eko ekainaren 16an hil zen, 81 urte zituela.
Haren oroimenez I.urteurreneko meza izango da, igandean,
ekainaren 19an, 11:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.



VII.URTEURRENA
Garbiñe Iriondo Aristondo
2015ko ekainaren 13an hil zen.
**Izan zarena, erakutsi duzun kemena,
gure artean geldituko da zugandik jasotako dena.**

Etxekoak




I.URTEURRENA
Jon Galarraga Aranguren

2021eko ekainaren 19an hil zen, 51 urte zituela.

**Urte bat pasa arren
jadanik zu gabe,
maite zaitugun denon
bihotzetan zaude.**

Etxekoak





Garapen eredu jasangarria eta inklusiboa

ARANTXA TAPIA OTAEGI

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun
eta Ingurumeneko sailburua

ELGOIBAR

Aita Agirre kulturguneko areto nagusian
Ekainaren 22an, 18:30ean
